IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

OPE 2018
2018ko EPEa

# DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# *HEZKUNTZA SAILA*

***2018ko EPEa. BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA***

***OPE 2018. ENSEÑANZA SECUNDARIA Y FORMACIÓN PROFESIONAL***

***ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: FILOSOFIA***

Erakunde autonomiadun
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## 1. LOGIKAKO ARIKETA (2 PUNTU)

Eratorri '$(r \vee s) \rightarrow t$' zuzenean eta *reductio ad absurdum* erabiliz premisa hauetatik:

1. $r \rightarrow p$
2. $\neg q \rightarrow \neg r$
3. $s \rightarrow q$
4. $(p \wedge q) \rightarrow t$
5. $\neg s \vee p$

Justifikatu urrats guztiak.

## 1. EJERCICIO DE LÓGICA (2 PUNTOS)

Derivar '$(r \vee s) \rightarrow t$' directamente y por el método de reducción al absurdo a partir de:

1. $r \rightarrow p$
2. $\neg q \rightarrow \neg r$
3. $s \rightarrow q$
4. $(p \wedge q) \rightarrow t$
5. $\neg s \vee p$

Justifica todos los pasos.

## 2. HEZKUNTZA-ARLOKO ESKU-HARTZEAREKIN LOTUTAKO ARIKETA (4 PUNTU)

**Datorren testua eta horren mintzagaia abiapuntutzat hartuz, planteatu ikasgelan bat edo bi saioren garapena. Horretan agertu behar dute:**

1. **Testuingurua: ikasgaia, maila eta gaia**
2. **Garapena**
   a. **Helburuak, gaitasunak eta edukiak.**
   b. **Metodologia, baliabideak eta jarduerak.**
   c. **Ebaluazioa: irizpideak eta tresnak.**

Inpartzialtasun gisa ulertzeko justizian berdintasunezko jatorrizko egoera deritzoguna naturazko egoera da gizarte-hitzarmenaren teoria tradizionalean. Jatorrizko egoera ez dago pentsatuta, jakina, gauzen egoera historiko erreal gisa eta, are gutxiago, kulturaren egoera primitibo gisa. Egoera erabat hipotetikotzat jotzen dugu; justiziari buruzko ikusmolde jakin batera gidatzeko moduko ezaugarriak dituen egoera hipotetikotzat. Egoera horren funtsezko ezaugarrietako bat zera da: inork ez dakiela zein den gizartean duen lekua, norberaren gizarte-maila, -klasea edo –estatusa; eta inork ez daki, ezta ere, zer zori egokitu zaion berezko gaitasun eta abantailen banaketan, nolakoak dituen adimen-maila, indarra, etab. Emango dut, gainera, taldeko kideek beraiek ere ez dakitela ongiari buruzko zer ikusmolde dituzten, ez eta zer joera psikologiko berezi dituzten ere. Justiziaren printzipioak ezjakintasun-estalki baten ostetik hautatzen dira. Zera bermatzen du horrek: ez berezko zoriaren ondorioek ez gizarte-egoeraren kontingentziek ez diotela inori ez abantailarik ez desabantailarik emango printzipioak hautatzerakoan. Denak antzeko egoera-maila daudenez eta inork ezin duenez norberaren egoera partikularren aldeko printzipiorik taxutu, justiziaren printzipioak bidezko akordio edo hitzarmen baten emaitza izango dira. Izan ere, jatorrizko egoerak ezaugarri horiek izanik eta partaideen arteko erlazioak simetrikoak izanik, hasierako egoera hori ekitatezkoa da gizabanakoen artean, izaki moralak diren heinean; hau da, nork bere xedeak dituen izaki arrazional diren heinean, eta hortaz, justizia-sena izateko gaitasundutzat hartuko ditut. Esan liteke jatorrizko egoera hasierako *statu quo* egokia dela eta, horrenbestez, egoera horretan lortutako funtsezko akordioak bidezkoak direla. Horrexek esplikatzen du "justizia inpartzialtasun gisa" esamoldearen egokitasuna: justiziaren printzipioak bidezko den hasierako egoera baten hitzartzen direlako ideia ematen du aditzera.

John RAWLS: Justiziaren teoria bat

## 2. CUESTIÓN RELACIONADA CON LA INTERVENCIÓN EDUCATIVA (4 PUNTOS)

**Tomando como punto de partida el siguiente texto y su tema, plantea el desarrollo de una o dos sesiones en el aula. Desarrolla los siguientes apartados:**

1. **Contextualización: asignatura, nivel y tema**
2. **Desarrollo**
    a. **Objetivos, competencias y contenidos.**
    b. **Metodología, recursos y actividades.**
    c. **Evaluación: criterios e instrumentos**

En la justicia como imparcialidad, la posición original de igualdad corresponde al estado de naturaleza en la teoría tradicional del contrato social. Por supuesto que la posición original no está pensada como un estado de cosas históricamente real, y mucho menos como una situación primitiva de la cultura. Se considera como una situación puramente hipotética caracterizada de tal modo que conduce a una cierta concepción de la justicia. Entre los rasgos esenciales de esta situación está el de que nadie sabe cuál es su lugar en la sociedad, su posición, clase o estatus social; nadie sabe tampoco cuál es su suerte en la distribución de ventajas y capacidades naturales, su inteligencia, su fortaleza, etc. Supondré, incluso, que lo propios miembros del grupo no conocen sus concepciones acerca del bien, ni sus tendencias psicológicas especiales. Los principios de la justicia se escogen tras un velo de ignorancia. Esto asegura que los resultados del azar natural o de las contingencias de las circunstancias sociales no darán a nadie ventajas ni desventajas al escoger los principios. Dado que todos están situados de manera semejante y que ninguno es capaz de delinear principios que favorezcan su condición particular, los principios de la justicia serán el resultado de un acuerdo o de un convenio justo, pues dadas las circunstancias de la posición original y la simetría de las relaciones entre las partes, esta situación inicial es equitativa entre las personas en tanto que seres morales, esto es, en tanto que seres racionales con sus propios fines, a quienes supondré capaces de un sentido de la justicia. Podría decirse que la posición original es el *statu quo* inicial apropiado y que, en consecuencia, los acuerdos fundamentales logrados en ella son justos. Esto explica lo apropiado del nombre "justicia como imparcialidad": transmite la idea de que los principios de la justicia se acuerdan en una situación inicial que es justa.

John RAWLS: Teoría de la justicia.

## 3. TESTU IRUZKINA (4 PUNTU)

1. **Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak**
2. **Idatzi disertazio labur bat (350 hitz, gehienez) testuaren tesia eztabaidatuz. Azaldu Heidegger-en aldeko eta aurkako argudioak. Amaitzeko, egizu zure gogoeta gaiari buruz.**

Zer aipatu nahi da filosofiaren akabantzarekin? Errazegi hartzen dugu akabantza zentzu ezkorrean, akabatze soil bezala, aurrerapen baten bukaera bezala, ez bada hondamendi eta ezintasun bezala. Aldiz filosofiaren akabantzaren aipamenak **metafisikaren** osatzea esan nahi du. Osatzeak ez bait du esan nahi perfekzioa, filosofiak bere akabantzarekin perfekziorik handiena lortu behar zukeen. Ez zaigu falta bakarrik metafisikaren garai bateko perfekzioa beste batekoarekin gonbaratzeko baimena ematen digun neurri hura. Ez dago eskubiderik batere era horretan neurtzeko. Platonen pentsatzea ez da Parmeniderena baina osoagoa. Hegelen filosofia ez da Kantena baina osoagoa. Filosofiaren garai bakoitzak bere premia propioa dauka. Onartu egin behar dugu, besterik gabe, filosofia bat den bezala dela. Ez zaigu zilegi beraz bata besteari hobestea, halako jokabide bat **kosmoikuspegi** desberdinekin zilegi bada ere.

HEIDEGGER, Martin; Filosofiaren akabantza eta pentsatzearen auziaz, PALACIOS, Xabier (Ed); Filosofia testuak. Bilbo (1991)ko liburuan.

## 3. COMENTARIO DE TEXTO (4 PUNTOS)

1. **Explica los términos subrayados.**
2. **Escribe una breve disertación (350 palabras como máximo) discutiendo la tesis del texto. Expón argumentos a favor y en contra de la tesis Heidegger. Expón finalmente tu reflexión personal al respecto.**

¿Qué queremos decir ahora cuando hablamos del final de la filosofía? Con demasiada facilidad entendemos el final de algo en un sentido puramente negativo, como simple cesación, como detención de un proceso, e incluso como deterioro. Por el contrario, la expresión "final de la filosofía" significa el acabamiento de la **metafísica**. Ahora bien, el acabamiento no es aquí perfección en el sentido de que la filosofía, en su estadio final, tendría que haber alcanzado su máxima perfección. No sólo nos falta el patrón que nos permita apreciar la perfección de una época de la metafísica por comparación con otra época distinta. En modo alguno se nos ha otorgado ningún derecho de formular apreciaciones de este tipo. El pensar de Platón no es más perfecto que el de Parménides. La filosofía de Hegel tampoco es más perfecta que la de Kant. Toda época de la filosofía tiene su necesidad propia. Que una filosofía sea como es, esto debemos reconocerlo sin más. Pero en modo alguno podemos privilegiar una filosofía por encima de otra, al modo como por el contrario, nos es lícito hacerlo cuando se trata de **Weltanschauungen**[i] diferentes.

Heidegger, Martin.- *El final de la filosofía y la tarea del pensar*, en PALACIOS, Xabier (Ed); en *Textos de filosofía*. Bilbao (1990)

[i] cosmovisión